



# Schools for Resilience

**ZIRKULARRA**

2015eko Urtarrila





Schools for Resilience (Erresilientziarako eskolak) proiektu europarra Europar Batasuneko Bizitzan Zeharreko Ikasketa Programaren baitan sortua dago. Aranzadi Zientzia Elkarteak gidaturik, Iraunkortasunerako Hezkuntzan adituak diren Erresuma Batua, Irlanda, Danimarka, Italia eta Letoniako talde ezberdinak elkartzen ditu.

SfR Ingurumen Hezkuntza Tradizionalean (Garapen Iraunkorrerako Hezkuntza) aldaketa eragitea du helburu, modu erresiliente batean banakakoa nahiz komunitatea nola sortu eta bizi diren eremua birpentsatzen lagunduko duena. Bi alderdi nagusi lortu nahi dira honela:

- Modu baikorrean arazo globalak ulertu eta haiei irtenbide lokalen bitartez aurre egitea.
- Ikasleriak iraunkortasuna definitu, eraiki eta bultzatzea, betiere haien komunitatearen beharren arabera.

Proiektua hiru zutabe nagusik eusten dute: pentsamendu sistemikoak, norbanako eta komunitatearen erresilientziak eta baloreek:

- Bizitza sostengatzeko natura prozesuekin bateragarriak diren komunitateak sortzeak, ekologiako oinarritzko ezagutzak eskatzen ditu;
- Edozein testuinguru edo egoeretan modu erresiliente batean jarduteak, ezagutza eta trebetasun pertsonalak, komunitatearen eraikuntza eta jasangarritasuna eskatzen du.
- Pentsatzeko modu jasangarriak sustatzeko baloreak ezinbestekoak dira. Proiektuak hiru balore nagusi indartzea bilatzen du: Naturarekiko errespetua eta gure planetaren egoerarekiko zainketa, bizitza garatzeko pertsona guztientzako aukera berdintasuna eta datozen belaunaldiekiko begirunea.

## Proiektuaren bilera Port Talbot-en (UK)



Proiektuaren taldekideak hiru egunetan zehar elkartu ziren Margan Discovery Center delakoan, Hego Galeseko FSCEk (Field Studies Council) antolaturik. Bertan garatutako metodologia eta ereduaren inguruan hausnarketa egin zen. Izandako eztabaiden ardatza Jasangarritasunerako Hezkuntzaren arloko beste programa batzuetatik SfR ekimena nola nabarmendu daitekeen izan zen.

Erresilientziaren kontzeptua lantzeari ekiten dion zerbait guztiz berria proposatzearen erronka, errekonozimendua jaso zuen. Zailtasuna areagotua ikusten da, sortuko den sekuentzia didaktikoak partaide diren 6 herrialdeetako beharren eta Curriculumen eskakizunekin topo egiten duenean.



Ondorengo hilabetetan egingo den lanean, metodologia eta eredu sekuentzia didaktiko batean bilakatuko dira, zeina malgua eta egokitua izan beharko duen partaide guztien testuingurura eta hezkuntza sistemara.




## SfR metodologia

Bai helburuak eta baita SfR-ren oinarriak ere, proiektuaren lehendabiziko urtean garatuko den metodologian eta ereduaren antolatzen dira.

SfR metodologia, parte hartzera gonbidatzen duen bidai bat bezala planteatzen da, non ikaskuntza ernarazi egiten den. Gainera, ikaskuntza modu logiko eta zirkular batetan ematen den egitura bat eskaintzen du.

Urratsa	Ikaslea
Konprometitu ( <i>interesa erakarri</i> )	Ingurua ezagutu eta aurrean dituen erronkak, komunitatearen baliabideak eta haiek eta komunitateak baloratzen dutena identifikatu.
Esploratu ( <i>interes gune bat</i> )	Komunitatearekin harremanetan jarri eta interes guneak esploratu. Ikasleak bere gertuko ingurunea eta bertan bizi diren ikuspuntu ezberdinak hobeto ulertzea.
Aztertu ( <i>ondorioak</i> )	Emaitzen eta lortutako informazioaren inguruan hausnarketa egin, eta landutako gaiei erantzuna emateko diezaioketen ekintzak erabaki.
Ekintzara pasa ( <i>lekuan-lekuko proiektua</i> )	Komunitatean eta komunitatearekin lekuko erresilientzia hobetuko duen ekintza bat garatu.
Zer aldatu liteke? ( <i>etorkizunari begira</i> )	Ekintzaren emaitzak ebaluatu eta hausnartu: zerk funtzionatu duen, hurrengo aldia zer egin litekeen beste modu batetan eta emaitzak nola komunikatu. Zeintzuk izango dira etorkizuneko erronkak?



Partaide bakoitzak hurrengo ereduaren atal bakoitzarentzat hezkuntza ekintzak garatuko ditu, [Real World Learning Network](#)-ek egindako ikerketatik egokiturik, jasagarritasunarentzat aldaketa bat suposatzen duen ikaskuntza eskaintzeko.



## SfR Sekuentzia Didaktikoa

Metodologia eta eredia SfR Sekuentzia Didaktikoaren oinarri izango dira; berau 2015 urtean zehar garatua izango da. Plan komun batetik abiatuz, partaide bakoitzak bere hezkuntza curriculumera eta inplementatua izango den komunitatearen eta eskolaren testuingurura sekuentzia egokitu egingo du. Sekuentziaren garapen horretan, eskola eta beste hezkuntza erakundeen iritziak jasoko dira. Honen helburua, sekuentzia didaktikoaren bertsio ezberdinetan irakasleen eta hezkuntza sistemaren beharrik kontutan hartuak direla ziurtatzea da.

Sekuentziaren inplementazioa pilotu eran eskoletan 2015-2016 ikasturtean burutuko da.

### Gehiago jakin nahi honen inguruan? *(ingelesez soilik)*

- Lekuan Oinarritutako Ikaskuntza (Place Based Learning): [Promise of Place](#)
- Erresilientzia: [Surfing the waves of the change](#)
- Balioak: [The common cause handbook](#)
- Pentsamendu sistemikoa: [Thinking like an eco-system](#)
- Erresilientziarako eskolak, Green European Journal-ean: Ikus artikuloa: ["Education for sustainability: a driver for the global change"](#)

## Iraupena:

2013ko azaroa – 2016ko urria

## Informazio gehiago:

### Proiektuaren koordinatzailea

Aranzadi Zientzia Elkarte: [rmartinez@aranzadi-zientziak.org](mailto:rmartinez@aranzadi-zientziak.org)

### Erakunde bazkideak

VIAC (Denmark): [pa@viac.dk](mailto:pa@viac.dk)

Municipality of Olginate (Italy): [rocco.briganti@specchiomagico.org](mailto:rocco.briganti@specchiomagico.org)

Cultivate (Ireland) : [davie@cultivate.ie](mailto:davie@cultivate.ie)

Bernu Vides Skola (Latvia): [inese@videsskola.lv](mailto:inese@videsskola.lv)

Field Studies Council (United Kingdom): [richard@field-studies-council.org](mailto:richard@field-studies-council.org)

[www.schools-for-resilience.eu](http://www.schools-for-resilience.eu)



Proiektu hau Europako Batzordearen laguntzarekin finantzatu da.  
Publikazio honen ardura osoa bere autorearena da. Batzordeak ez du  
hemen zabalduko informazioaz egin daitekeen erabilpenaren ardurarik.